

BASO HERRI BERRIA

Nere aitona-amonak bizi ziren baserria hutsik geratu da eta plan bat dut toki horretarako.

Plan ikaragarri ona da, baina azaldu baino lehenago baserriaren historia pixka bat kontatuko dizuet.

Nire amona Ramona eta aitona Martin Aiako baserri batean bizi izan ziren urte askotan, Hiruturri baserria hain zuzen. Inork ez daki zehazki zergatik duen izen hori. Euskaltzaindiko jakitun bat etorri zen behin eta esan zien baserriko zelai baten azpian hiru lurpeko iturri edo errekatxo pasako zirela eta horregatik izango zuela izen hura. Egia esan posible da, zeren Hiruturrin ez da inoiz urik eta hezetasunik falta. Urtero daude zapaburuz betetako putzuak, igel pila, xomorroak airean eta xomorroak jaten txori eta saguzarrak.

Baserria Hiruturri deitzen bada ere, ezizen bat du, Karakoletxea. Herriko denek hala deitzen diote, Karakoletxea. Aitonak izen bitxi horren nondik norakoak kontatu zizkidan behin. Bada, baserria eraikitzen ari zirenean, inguruko baserriko kurioso bat hurbildu omen zen eta bertan zer eraikitzen ari ziren galdetu. Inguru hezea izanik milaka barraskilo ibiltzen dira bazter horietan barna eta honela erantzun zioten: hemen karakol fabrika egingo dugu. Baserritar hurak sinistu egin zien egindako broma eta segituan zabaldu zen albistea herrian. Orduetik Karakoletxekoak gara etxeko guztiak, eta ez dut uste inoiz ezizen hau aldatzerik izango dugunik.

Ni harro esaten dut Aiara noanean, Karakoletxeko biloba naiz ni!.

Beno, historia asko laburtuz nire amona eta aitona baserrian bizi eta alaba bat eta seme bat izan zituzten. Beraien alaba nire ama da, bere semea nire osaba. Ama eta osaba modernoak sentitzen ziren, beraz ikasi eta ez ziren baserrian geratu. Ikasketak kanpoan egin eta Orio eta Madril hartu zuten bizileku. Hau dela eta, ni Orion jaio eta Oriotarra naiz.

Egun batean amona hil egin zen, momentu batetik bestera, bihotzekoak jota, batere sufritu gabe. Guk izan genuen nahiko tristezia bera hil eta gero, baina berak ez, pozik bizi izan zen baratzean ziplo geratu zen arte.

Nire aitona berriz bakarrik eta triste geratu zen amona joan eta gero. Nahiz egunero izaten zuen bisitaren bat, nik bakarti eta makal ikusten nuen aitona. Berak ezin zuen baserritik irten lagunak bisitatzera eta bere lagun gehienak berdin zeuden, ezin zuten aitona arengana gerturatu ez baitzuten kotxerik.

Amona hil eta denbora batera gaitza harrapatu zuen aitona eta gero eta makalago zegoen. Minbizia izan zuen. Nik beti pentsatu dut minbizia gaitzak min bizi-bizia eman behar duela, baina aitona zioen medikuak emandako pilulei esker berak ez zuela minik pasatzen.

Aitona okerrago jarri zenean, nire guraso eta osabak Nikaraguako emakume bat ekarri zuten baserrira, Amalia. Soldata bat ordaintzen zioten eta Amaliaren lana aitonaekin bizi eta berari laguntzea zen. Nahikoa ondo moldatu zirela uste dut, baina bakarti bat beharrean bi bakarti bihurtu ziren. Amaliak ez zuen kotxerik eta egunak pasatzen zituen baserritik irten gabe, aitona bezala.

Horra hor Hiruturri baserria, Karakoletxe ezizena duenaren historia labur-laburra.

Orain nire proiektua aurkeztu nahi dizuet:

BASO HERRI BERRIA

Badakizu baserria hitza basoko herriatik datorrela? Kontatu dizut nire aitona-amonak bakarrik geratu zirela baserrian, baina aspaldiko garai batean, hainbeste pertsona bizi ohi zen baserri batean, herria osatzen zutela ia. Hortik omen dator baserria hitza. Aitona-amonak, aita eta ama, hauen seme-alabak, osaba-izeba ezkongabeak, eta morroiren bat askotan 14 lagunetik gora bizi zitekeen baserri bakar batean! Denek egiten zuten lan pila eta beraietako norbait kanpora joaten bazen lanera, fabrika batera edo, bere soldata guztia baserrira ekartzen zuen denontzat.

Baina hori ez da gaur egungo estiloa. Gaur egun herrietan edo hirietan bizitzea dago modan. Baserrietan geratu diren ausartak, nire aitona eta amona bezala, bakar xamarrik daude askotan.

Horregatik ideiatu dut Baso Herri Berria proiektua. Begira... gure baserria eta lurak salgai daude, eta pareko baserri eroria eta bere lurak ere. Pareko baserriak Uruntzi izen du. Hango aitona hil eta amona orain herri batera joan da bizitzera bere alabarekin.

Salgai dauden bi baserri hauen tartean beste bi lur sail daude. Ezkerrekoa Martiñene baserrikoa da. Oso sail txikia eta sagarrondo zaharrez betea dago. Sagarrondoak zaharrak daude, mihura parasitoaz josita, bere bizitzari ahal duten bezala eusten. Nire gurasoek gogoratzen dute txikitik sagarrondoak ederki zaintzen zituztela sagarretatik sagardo franko lortzen baitzuten. Martiñene baserrietik urruti geratzen da sagasti hau eta erabiltzen ez dutenez, beraiekin hitz egin eta erosi behar diegu, lehenbailehen!

Eskuineko lur saila Etxepare fabrikarena da. Etxeparetarrak eta bere fabrika ez daude hemendik gertu. Terreno hau erosi omen zuten inoiz beste fabrika bat jartzeko asmoz, baina gaur egun zelai polit-polita, baso txiki bat eta eroritako beste baserri bat daude. Beno eta nahikoa sasi ere, gero eta gehiago. Lur hauek sasipean geratzeko arriskuan daude! Denak erosi eta zerbait egin behar dut hemen!

Eta zer egin lau lur sail hauekin? Ba aitona eta amona bakartientzat apartamentu polit eta goxoak egingo ditut. Apartamenduak kaleko pisuak bezala dira, baina txikitxoak, erosoak, bat edo bi pertsona bizitzeko diseinatuta daude. Horrelakoak eraikiko ditut hemen. Aitona-amonak eta bere zaintzaileak elkarrengandik hurbil bizi ahal izango dira orduan. Kartetan jolastu, elkarrekin pelikulak ikusi, paseatu eta asko, asko hitz egin ahal izango dute. Bere parrandatxoak egiteko aretoak izango dituzte eta taberna-jatetxea ere egongo da beraiek, zein bisitak, zein inguruko baserriakoak elkar topatzeko! Gimnasioa ere, eta nola ez kanpoaldean paseoak sagasti eta intxausti zaharretatik. Bideak egokiak izango dira bastoiarekin edo gurpildun aulkiarekin pasatzeko eta eserleku pila egongo da nekatu ezker esertzeko.

Pentsa, bertako animalia eta landareak ikusi eta entzun ahal izango dituzte nahi duten guztietan. Umeentzat jolastoki zabal, berezi eta ederra egongo da, baita mahaiak, merienda eta bazkariak egiteko. Honela, herriko haurrak eta familiak etorriko dira jolastera eta inguruan giro ederra jartzera. Gure zaharrak ez dira bakarrik sentituko eta erabilera berria emango diogu sasiz estaltzen ari den inguru honi. Baso Herri berria izango da!

Benoa, hori dena gogoz kontatu dizuet baina ia orain helduekin hitz egiten dudana... planoak eta diru-kontuak nik prestatu ditzaket gutxi gora behera, baina inbertsoreak (proiektua eraikitzeko dirua jarriko dutenak) eta baimenak (udalak eman beharko dituenak) behar dira hemen. Zoritxarrez hauek denak ezin ditu haur batek eskatu, eta nik ezin dut itxaron heldua izan arte Baso Herria egiteko!

10 urte ditut eta ez zait batere erraza egiten helduekin hitz egitea. Niri behintzat ez didate kasu gehiegirik egiten. Konturatzen naiz amari edo aitari hitz egiten nagoenean, nahiz eta begiratzen didaten, nahiz eta a, bai? eta horrelakoak esaten dituzten, beste mundu batean daudela, bere gauzetan murgilduta. Nire gurasoek robota izaten ikasi dutela dirudi. kanpotik edozeinek esango luke kasu egiten didatela, baina esaten dudana bere belarri batetik sartu eta bestetik nola ateratzen den ikusten dut askotan. Eta galdetzen badiet esan dudanaren gainean zerbait automatikoki eta disimulu gutxirekin esaten dute Ai, esadazu azkeneko hori berriz, pixka bat galdu egin nahiz eta.... Zer uste dute? Ez naizela konturatzen kasurik ez didatela egiten?

Gauza da oraingoan konbentzitu behar ditudala nire gurasoak bai ala bai. Bestela beldur naiz gure baserria hutsik egonda lapurrak sartuko direla, sasiek estaliko dutela edo okerrago baserria bota eta bere txaleta egiteko intentzioarekin etorriko dela norbait.

Horretarako zuen laguntza behar dut. Nola helarazi helduei Baso Herria eraikita, ingurua, natura, baserria, gure adinduak eta herri giroa primeran zainduko ditugula? Ideiarik bai?

Idazlea: Xio